

Berriketan

Debako herri aldizkaria


270. alea - 2022ko otsaila



Pilar Saenz


Maxiko tabernaria

“Ez dago gure esker
ona erakusteko hitzik”



**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

Calbeton



JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan**

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



SO UNTE

**BURU - ZURI
Taberna**

- Ofartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

DEBA HORTZ KLINIKA



Hondartza kalea, 20 behea - 20820 - Deba
Tel. 943 19 28 19 | info@debaklinika.com

Odontologia orokorra
Kirurgia
Implanteak
Ortodontzia tradizionala
Invisalign ortodontzia (ikusezina)
Haurren odontologia

*Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

BOHÈM
BOUTIQUE

LERSUNDI KALEA 25 - DEBA
T 608 135 775
E MAITE.BOHÈM@GMAIL.COM



ARENA BAR



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843

Zumardi

pentsioa

Tel.: 688 800 619
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com

ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba

LABATAI
taberna

GOSARIAK GOIZEKO
06:00ETATIK AURRERA
PINTXOAK, OGITARTEKOAK
ETA PLATER KONBINATUAK,
EGUN OSOAN ZEHAR



270. alea - 2022ko otsaila

AURKIBIDEA



KULTURA | 8

Alaitz Eskudero kide duen Neomak-ek lehen kanta plazaratu du



ELKARRIZKETA | 10

Pilar Saenz Maxi tabernaz aritu zaigu lokal mitikoa itxi berrin



KIROLAK | 12

Javier Berasaluce futbolari ohiaren ibilbideaz, bere heriotzean



ERREPORTAJEA | 14

Deba eta Mutriku lotzen dituen zubiko lanak laster amaituko dituzte



ELKARRIZKETA | 16

Iosu Arraiz Mankomunitateko lehendakariarekin solasean (DKT)

Berriketan

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83 / 632 043 322

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com



Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Erredakzioa: Izaro Aulestiarte, Nagore Dorronsoro eta Alex Turrillas

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Martin Lores

Publizitatea: Joseba Escudero eta Alex Turrillas

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Lege gordailua: SS-246-200

Inprimategia: Euskalinpri

ISSN 2171-7656

LAGUNTZAILEAK:



DEBANO UDALA



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

Informatika
Tresneria
informatikoa

Elektronika
Osagai
elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Arakistain plaza, 2 behea - DEBA
Tel: 943 19 22 63
www.atarideba.com

ieraenea
ekodenda
"maite ditut nire/gure baserrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Telf:943 53 95 20- E-mail: ieraenea@gmail.com

k
kutxabank

ENDAÑETA
muebles altzariak

Sukalde eta etxe altzarien erakusketa izugarria 3000m²

Itziaroko gaina
T.: 943 19 91 00 - F.: 943 19 91 01
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)
endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com


ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Betirako gure etxea



Kafe huts bat eskatu ostean kendu dituzu siesta osteko azken nagiak, zure lagunak ez dira oraindik iritsi. Denborapasan, barra amaieran pilatzen den egunkari-dorrea arakatzeko zaudela, egin gabeko gurutzegrama bat aurkitu duzu. Kafe-birringailuaren zarata eta Ramones taldearen *Hey, ho, let's go!* bozgorailuetatik. Profetikoa, zeharo. Egunkaria itxi,

loredun katiluko azken arrastoak irentsi eta kaña bat eskatu ahala hasi zara giroan murgiltzen.

Zure etxean zaude, inguruak ere hala sentitzen dira, Pili gure bigarren ama da. Asteburua da, bizitza ospatzeko unea. Tragoz trago, kezak uxatu, gozatu eta... bihar biharkoak! Gaur ez dago bestelako buruhausterik, eta terrazan izozten zaren bitartean kakahueteak afaltzea ez da arazo izango. Ez zara plan hori duen bakarra, komuneko ilaran egin dituzun lagunak ere antzera (edo okerrago) dabilta. Hurrengo trago erronda zure kontu: bost gin-tonic. Ordaindu, buelta erdi eman eta... *gooo!* Realaren garaipenak taburetera iltzatuta ziruditenak aztoratu ditu. Futbolzale ez

direnak ere ez dira goiz erretiratu, gaur ez da aitzakiarik. Barre eta algara artean musikaren burrunba itzuli da. Zein ederra den elkari lepotik helduta 80ko hamarkadako talde mitikoen eraserkiak abestea. Beste behin ere, ahotsa urratu arte.

Belaunaldiz belaunaldi, zenbait gauza ez dira aldatu. Azulejo txuri-bel-tzak, pegaten txokoa, apaleko titiak... baina, batez ere, bertako sentitzen garen non maitasuna.

Maxi Bar, betirako gure etxea. Mila esker guztiagatik, familia!

Lander, Sabas, Larra, Manez, Aitor, Amets, Mattin, Gorka, Mikel, Gilen eta Alex

Lanean hasiak gara Korrika Batzordean; zatoz gurekin!

Otsailaren 10ean eratu genuen Debako Korrika Batzordea eta hasiak gara jada Korrika gurera iritsiko den eguna eta herrian egingo diren bestelako ekintza kultural batzuk antolatzen.

Apirilaren 7tik 8rako gauerdian iritsi-

ko da euskararen aldeko ekimen herri-koia Debara eta Itziarrera. Korrikaren lekukoa eraman nahi baduzu, edota antolatuko diren ekimenetan laguntzeko prest baldin bazaude, jar zaitez zuzenean gurekin harremanetan. Horretarako, ida-

tzi mezua deba@korrika.eus helbidera edo 688 84 03 08 telefono zenbakira. Guzti-guztion ekarpena izango da ongi etorria!

Tipi, tapa, tipi, tapa...

Korrika Batzordea

LIZ.-ZK.: 3

TaxiAlain Deba

WiFi

www.taxideba.eus

636 135 008
alain@taxideba.eus

MAXI BAR

Eskerrik asko!

1982-2022

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

Janire & Maitane
ileapaindegia

Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31 | www.janiretamaitane.com

Denok

dit

FEM
INI
STA

Pasa den astean, deigarria egin zitzaigun mezu bat ikusi genuen sare sozialetan: "Todas tenemos una amiga que sufrió abusos. Pero ninguno tiene un amigo abusador. No dan las cuentas" ("Denok daukagu abusua jasandako lagun bat, baina inork ez lagun abusu-egilerik. Kontuak ez datoz bat"). Esaldiak zer pentsatua eman zigun. Pil-pilean dagoen gaia dela esan genezake, denok kezkatzen gaituena. Herrian, duela gutxi, beste pintada hau ere agertu zen: "Feminismo no es encubrir a tu colega" ("Feminismoa ez da zure laguna estaltzea"). Horregatik, eta egun seinatu baten bueltan gabiltzanez, egin dugun hausnarketa hau ekarri nahi genuke aldizkari honetara.

**Eraso Sexisten Aurkako
Protokoloa sortzeko
asanblada irekia egingo da
martxoaren 5ean,
12:00etan, Kultur
Elkartean. Denok izango
zarete ongi etorriak**

Denok ezagutzen dugu duela hila-bete batzuk kaleetan agertu zen salaketa matxistaren kasua, denok ezagutzen dugu jai-giroan Debako tabernetan gertatutako ukitu eta irainen bat, eta denoi egiten zaigu ezagun gaueko ordu txiketian botiloian ibili ohi den ustezko bortxatzailearen kasua.

Indarkeria matxista egiturazkoa da, zapalkuntzaren formak askotarikoak izanik: soldata-arrakala izugarria, sexu-jazarpena, kristalezko sabaia, estetika eredu itogarriak, eraiketak... Hala, horri dagokion erantzukizuna denona da.

Herriko espazioak ez dira oraindik seguruak, indarkeriak badarrai. Eta ustez horrelako kasuen aurrean izan beharko genituzkeen jokabideak argi baditugu ere, ez dakigu nola ekin alboan tokatzen zaigunean. Guk ez dakigu behintzat, zuek bai?

Argi izan beharko genuke zer onartu eta zer ez, zer salatu eta nola zigortu, zein seinatu eta noiz arte. Horregatik, Deba eta Itziarko Talde Feministatik, asanblada ireki bat egingo dugu Erasoa Sexisten Aurkako Protokoloa sortzeko; datorren martxoaren 5ean, larunbata, 12:00etan Kultur Elkarteko liburutegian. Denok izango zarete ongi etorriak.

Deba-Itziarko Talde Feminista



MALEN ALKORTA

Hirigintza-proiektuak

Udazkenean eta neguan zehar Deba-Itziarren egin diren partaidetza-tailerretan, herriko azpiegiturak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dugu. Gainera, martxan dauden edo etorkizun hurbilean martxan jarriko diren proiektuen berri ere izan dugu.

Etxebizitza berrien eraikuntzaz gain, badaude interes handia duten hainbat proiektu herriaren biziraupenerako garrantzizkoak izan daitezkeenak: lehenik, "Deba paleolitoaren harana" izeneko interpretazio-zentroa (Geoparkearen eta Udalaren eskutik); bigarrenik, trenbidea eta zumardiaren zaharberritzea (geltokia lekualdatzea eta sarrera-irteerak egokitzea, eta, zumardia erabat berritzatuko duen lehiaketa bidezko plan integrala); eta, azkenik, hondartzako pasealekua eta Kresalaren etorkizuna.

Azken horren inguruan hainbat ideia bildu ziren: hotela, zahar-egitza, edo funtzio anitzeko kultur etxea izan dadin. Azken proposamenaren aldeko apustua egingo nuke nik, herrian bizi eta lan egin nahi duenak horretarako aukera izan dezan. Bertan uztartu daitezke, izan ere, interpretazio-zentroa, kultur etxea, liburutegia, erakusketa-gela, ikuskizunetarako aretoak, coworking-erako gelak, taberna eta jantokia; baita igerilekua ere, nahi izanez gero.

Etxebizitza berriak eta hotela eraikitzen ari dira, bai, norentzat, ordea? Turistentzat eta uda pasatzera datozenentzat. Baina horiek aldi baterako biztanleak dira, ez dute egonkortasunik bermatzen.

Biztanleak galdu nahi ez baditugu, erakargarria den zerbait egin beharko dugu.

martxoak 10 - 30

Nafar hegoaldeko uzta
**Zuhatzta Euskara Elkarteko
baskideen eskura**

**Oinak
lurrean**

errigora.eus


Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



Bete ezazu
despentsa
urte guztirako

Zuhatzta
Euskara Elkartea

Martxoa amaitu aurretik zabalduko du Udalak Artzabalgo hilerri berria, dena ondo bidean



“Erregelamendua onartuta, lanak amaituta, eta une honean azken ukituak egiten ari direla, laster zabaltzeko moduan egongo da Artzabalgo hilerri berria”, jakinarazi du Debako Udalak. “Asmoa da martxoa amaitu aurretik zabaltzea, eta hala egingo da ezusterik sortu ezean”. Data zehatza ez du iragarri.

Hilerriaren gaia lantzeko batzorde bat sortu da Udalean, udalbatzako hiru alderdietako ordezkariak eta udal teknikariak osatua. Eta, otsaileko bigarren astean egindako bilera batean, hilerriaren irekiera nola egin zehaztu dute batzordekideek.

Hori hala, jakinarazi dutenez, zabaldu aurretik hilerri berria ezagutzeko aukera izango dute herritarrek, martxoaren lehen hamabostaldian egingo diren ate irekien jardunaldi eta bisita gidatuak bitartez. Hilabete hasieran, hilerriari buruzko informazioa biltzen duen argitalpena ere jasoko dute herritarrek

etxean, eta haien iritzia eman dezaten bidea ere zabalduko da. Argitalpen horretan bertan emango dira zehaztasunak.

Udalak azaldu du Amillagako hilerri zaharretik Artzabalgo hilerri berrirako lekualdatzearen inguruan lanean diharduela aipatu batzordeak, hura arduratuko baita lekualdatze-prozesuaz. Eta gaineratu du etxetara banatuko den argitalpenean emango direla lekualdatzearen araudiaren eta irizpideen inguruko zehaztasunak ere.

Herritarren artean zalantza eta jakin-min handia sortu duen gaia da hilerriarena. Amillagako hilerria ixtera zihozela iragarri zuen Udalak iazko azaroan, hilerri berrirako lekualdatzeari (eta, hortaz, Amillagakoa husteko prozesuari) abenduan helduko ziotela azalduta. Oraindik ere zabalik dago, ordea, Amillagakoa.

iritzia



IBON URKIA

Aspaldi honetan baditugu, herrian zehar, mural txukun askoak. Artzabalek barrena datorrenak larrabeixen margolana ikus dezake, auzolanean txukundutako lorategiaren aldamean. Zertxobait aurrerago, Gaztetxeko boxeoguantedunarena ageri da. Itziarretik behera etorrita, berriz, Miramar hotela izan zenaren orubean margotutako surfista eta trenbidepean, herri aniztasunaren ingurukoa.

Egia esateko, horma-irudiok herriko paisajeari ukitu artistikoa ematen diotela uste dutenetakoa naiz neroni ere. Hitz gutxitan, ingurua ederrago eta atseginago bihurtzen dute. Ageriko desberdintasunak desberdintasun, margolan kontuak ez dira, nonbait, atzo goizekoak inguruotan. Zastarrain errekararen altzoan,

Ekain kobazuloko hormetan, zaldiak eta bestelako animaliak inork margotu zituela badira, adituen esanetan, hamabost bat mila urte.

Gaurkoetara itzulita, bada salbuespenik, hala ere. Ezin bestela izan, maiz gertatu ohi den moduan. Izan ere, Galtxa okindegia baino behereagoatik, Nelson eserita egoten den lekutik bertatik, munipen garajeko paretara begira geratu bada inor, konturatuko zatekeen pare pare nolako *obradearte*a daukan. Inpresionista ei da, gutxien-gutxienez, artelana. Niri behintzat inpresio galanta eragin zidan aurrenekoz ikustean. Lasturko taloak baino biribilago aurpegia. euskanglishez esatekotan, *tumatxa*. Wazemank programan Gaztea-ko Joseina imitatzen zuenak aho zabalik zioen bezala, *inpresionaanteeeee!*

Inpresio kontuak

Emakumeen zikloa izango du erdigunean M8aren inguruko programazioak

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, aurten ere, egitarau oparoa osatu du Berdintasun batzordeak. Askotariko gaiak lantzeko jarduerak antolatu diren arren, saiakera berezia egin da emakumeen zikloa erdigunean jarri eta zenbait eragilerekin lanketa interesgarriak proposatzeko.

Horrela, apirilera, Gaztelekuko arduradunek lau saioko formakuntza antolatu dute DBH 4. mailako ikasleentzat, euren hilekoa ezagutzeko asmoz, Deban eta Itziarren. Ikastaroa amaitutakoan hileko-kopak eta konpresa berrerrabilgarriak banatu eta azalpenak emango dituzte gaztetxoek. Kanpaina horrek bi helburu izango ditu, beraz: batetik, hilekoa eta emakumeen izaera ziklikoa agerian jartzea, eta, bestetik, produktu berrerrabilgarriak ezagutarazi eta horien garrantzia bistaratzeko.

18 urtetik gorako emakumezkoentzat, berriz, martxoaren 11n, 17:30ean, hilekoari buruzko tailerra izango da Ispiluen gelan. Emakumearen zikloa, zikloaren faseak, fase bakoitzaren eragin emozionala, elikaduraren garrantzia, higiene menstrual... landuko dira bertan (izen-ematea: berdintasuna@deba.eus).

Martxoaren 25ean, 19:00etan, meno-

pausiarri buruzko kafe-tertulia izango da Deba-Itziarko Talde Feministak antolatuta; hori ere Ispiluen gelan. Esperientziak, ezinegonak, ezagutzak edo ez-ezagutzak partekatuzko aukera izango dute bertaraten direnek.

Hilekoaz edo menopausiaz hitz egin, emakumeak erdigunean jartzea izango da egitarauaren helburua; "hainbeste urtean ezkutuko izan direnez lasai hitz egiteko guneak sortuz, herri mailan kontzientziazio ariketa egin, eta naturala dena modu naturalenean tratatuz".

Horiez gain, martxoaren 4an, 19:00etan, *Bete ingoiau* antzezlan eskainiko da Burugorri eraikinean; martxoaren 8an, 19:00etan, Deba-Itziarko Talde Feministak deitutako manifestazioa izango da; martxoaren 13an, 12:00etan, Debako Kontalariak Emakumearen Eguneko ipuinak kontatuko dituzte; eta, azkenik, martxoaren 20an, 18:00etan, *Chhaupadi* dokumentala proiektatuko da (azken biak Kultur Elkartean).

Chhaupadi Nepalen grabatu zuten. Bertan, Edurne Pasaban mendizaleak Himalayaren alderdi ezkutuetako bat azaleratu nahi izan zuen, hango emakumeak euren komunitateetatik baztertzen baitituzte hilekoa duten bitartean.

Osasun-larrialdia eta murrizketarik gehienak bertan behera

Iñigo Urkullu lehendakariak eta Gotzone Sagardui sailburuak osasun arloko larrialdi-egoeraren amaiera iragarri zuten otsailaren 11ko LABiren ondoren emandako prentsaurrekoan. Eta horrela, otsailaren 14tik aurrera, COVID-19ari aurre egiteko neurriak bertan behera geratu dira Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko alorretan. LABI bera ere desegin egin zuten.

Hala ere, otsailaren 10etik aurrera dagoeneko musukorik gabe ibil zitekeen aire librean EAEn, Espainiako Estatuko Lurralde arteko Osasun Kontseiluak hala erabakita; eta aurrera begira, indarrean jarraitu duten neurri bakarrak kirol ekitaldien aforoak eta

maskara eremu itxietan erabiltzeko derrigortasuna izan dira. Neurri horiek estatu mailako eskumenei dagozkie.

Gainerako debekuak bertan behera geratu dira, hala nola ostatuak 1:00etan ixtea, % 60ko aforoak, barran kontsumitzeko debekuak edo tabernetan hamar pertsonatik gora esertzeko debekua.

Urkullu lehendakariak adierazi zenez, "neurri hauek guztiak hartzeko baldintzak betetzen dira, bai txertaketa datuek hobera egin dutelako, bai Omikron aldaera kontrolatuago dagoelako eta ez delako horren kaltegarria, baita, azken finean, Europako gainerako herrialdeetan antzerako neurriak hartzen ari direlako ere".



AINARA SEDANO

Disfuntzionaltasuna

Gauzaren bat beti egin den erara egin ordez, ausardia, beste nolabait egiteari gure etxean "disfuntzional" deitzen diogu. Ez funtzionatzen ez duela, baizik eta badirudielako ez lukeela ondo funtzionatu behar.

Ez dakit zergatik pentsatzen dugun zerbait puskatu egingo dela, jendeak atzamar salatzailearekin seinalatuko gaituela, edo epai eta sententzia zorrotzak jasoko ditugula... zerbait "gaizki" egin dugulako; disfuntzional.

Aurten gabon eguneko bazkariaren ordez, goizean mendi buelta egin nuen familiarekin, eta eguerdia eguzkitan patinatzen eman nuen, nik bakarrik. Mundua hutsik zegoen, dena niretzako. Eta egia esateko... aitortu beharra daukat, pixka bat bada ere, "disfuntzional" sentitu nintzela, A egin ordez B aukeratzeko kolokan jartzen nauela askotan. Baina aitortzen dut, era berean, nire disfuntzionaltasunean etxera pozik baino pozago itzuli nintzela. Azken batean, nahiago dudalako disfuntzionala den aukeratutako zerbait egin gustuko ez dudana behartutako zerbait baino.

Nire baitan neuzkan zenbait sinesmen berraztertze aukera eman dit gertaera puntual honek. Ze... hasiera batean sortzen zidan larritasuna alde batera utzita, ba al dakizue zer gertatu zen gabon bazkaria familian ez pasatzeagatik? Ezer ez. Ez zen ezer ere gertatu. Hurrengo egunean bizitzak normaltasunez jarraitu zion bere biderei.

Kopernikori esaldia hartuko diot maileguan amaitzeko: "Argi bakoitzak bere itzala duela, eta itzal bakoitzak, biharan berri bat".

Beraz, izan zaitez disfuntzional! Bihar, hutsetik hasteko aukera izango dugu berriz.

Neomak taldeak *Ilargi berriak* lehen abestia aurkeztu du, baita bideoklipa ere



Arg. Martin Lores

Arg.: Sutu Produksioak

Neomak-en lehenbiziko diskoak ez du oraindik argia ikusi, baina *Ilargi berriak* (Airaka, Mauka Musikagintza) kanta aurreratu dute dagoeneko, baita bere bideoklipa ere. Horixe da, hain zuzen ere, “*Neomak*” grekerazko hitzak esan nahi duena: ilargi berriak. Modu berean aurkezten du taldeak ere bere burua: “Ilargi berriak aurkeztera gatozen zazpi emakume gara”.

Lehenengoz 2014an Kepa Junkerarekin han eta hemengo oholtza gainetan ezagutu genituen Sorginak, orduko laguntasunak batuta, Neomak izenpean proiektu berriarekin dabilta azken urtebetean. Nahiko gaztetxotan hasita, trikiti-txapelketen bitartez, aurkari nahiz bikote gisara egin zuten plazara salto taldeko kideek. Sorginak taldeak batu zituen laster, eta, gerora, ibilbide berriari ekin zioten emakumeek Neomak taldea sortuta.

Kontzertu arrakastatsuak ari dira eskaintzen taldea osatzen duten zazpi emakumeak gaur egun. Ahots indartsuak dira kantetan nagusi, trikitia, panderoa eta perkusioarekin batera.

Alaitz Eskudero Unanue (Deba), Irati Gutierrez Artetxe, Amets Ormaetxea Ezpeleta eta Leire Etxezarreta Learreta (Arrasate), Garazi Otaegi Lasarte (Asteasu), Eneritz Aulestia Mutiozabal

(Zarautz) eta Maria Lasa Hilariok (Zizurkil) osatzen dute Neomak taldea eta, abesti propioez gain, trikiti tradizio-naletik hartutako koplak moldatuta ere kantatzen dituzte.

“Diskoa udaberrian kaleratuko dugu, mimoarekin eta denborarekin egiten den lanak emaitza hobea ematen duelako”

Folk tradizioa euren eremura ekarrita

Tradiziotik datorren baina, aldi berean, eguneratutako kalejira baten erritmoan dator aurkeztu berri duten kanta hau eta, Alaitz Eskuderoaren esanetan, “doinu eta estetika apurtzaileak ditu”. Elikatzen duen emaria, berriz, jatorrian aurkituko dugu: tradizioan, sorginetan, irrintzietan, kopletan...

Dosis Studio-n, Bilboko Errekalde auzoan, grabatu dute Neomak-en lehenengo entrega honen bideoklipa. Sorginakelarreen giroa, dantza, euskal tradi-

zioa eta abar biltzen ditu, eta estilismo oso zaindua dakar, jantzietan eta eszenifikazioan.

Eskudero adierazitakoaren arabera, “lantalde profesional ezin hobea” aritu da lanean bideokliperako. Airaka, Mauka Musikagintza ibili da produkzio lanetan; Haritz Harreguy Studio audioaren grabazioan eta produkzio-lanetan; Victor García (Ultramarinos Mastering) masterizazioan; Bideolan Proyectos Audiovisuales bideoaren grabazioan eta edizioan; Maite Albes estilismoan; Amaia Albes jantzien diseinuan; Arima Ile-apaindegia orrazkeretan eta Nua Estetika Zentroa makillajeon.

Udaberriarekin loratuko da diskoa

Neomak taldearen lehenbiziko kanta dagoeneko kalean den arren, berau hartuko duen diskoak ez du udaberrira arte argirik ikusiko. “Mimoarekin eta denborarekin egiten den lanak emaitza hobea ematen duelako. Sortze prozesuak eta diskoaren grabaketak lan handia du atzetik”, argitu digu Eskudero.

Bien bitartean, baina, *Ilargi berriak* abestiaren bideoklipa ikusgai dago YouTube-n (dagoeneko 55.000 ikustaldi baino gehiago izan ditu), eta Spotify plataforman entzungai abestia bera.

Alaitz Eskudero Unanue

“Kantaren izenburuak ezin hobeto azaltzen du nondik gatozen, etena eta nora goazen”

2014an elkartu zineten zazpiok Kepa Junkeraren proiektu baten bultzatzen Sorginak modura. Zerk bultzatu zaituzte orain proiektu berri honetan murgiltzera?

Kasualitatean baino kausalitatean sinesten dut nik. 2014an Kepak berak elkartu gintuen zazpiok bere proiektuan parte hartzeko. Etenaldiaren ondoren, VII. Nafarroako Trikitixa Jaialdian parte hartzeko gonbita egin ziguten 2021eko urtarrilean. Hala hasi ginen noizean behin entseguak egiteko elkartzen eta kanta berriak sortzen. Jaialdiko kartela osatzeko izen bat behar zuten eta orduantxe erabaki genuen *Neomak* izena. Jaialdiaren harira, hainbat herri-tatik hasi ginen kontzertuak emateko eskaintzak jasotzen. Oholtza haietan sentimenduak berpiztu ziren eta proiektu berria jarri zen martxan.

Zer oroitzen duzu Junkerarekin batera egin zenuen bide hartaz?

Zazpion izenean esan dezaket esperientzia profesionalaz gain oso esperientzia pertsonal potentia izan zela Kepa Junkera eta Sorginak proiektua. 14-16 urterekin intentsitate handiz bizi da dena eta hainbat urtez elkarren eskutik hazi eta hezi gara. Trikitia eta panderoaren aitzakian, musikari eta pertsona garrantzitsu asko ezagutu ditugu, baita munduko txokoak ere.

“*Neomak*” hitzak “ilargi berriak” esan nahi du, kanta ere *Ilargi berriak* duzue; zer dakarkigu, bada, hain berezia ilargi berriak? Zer sinbolizatzen du?

Taldekieok berberak izanik ere, argi genuen aurreko proiektua (Sorginak) eta proiektu berria izenaren bitartez ere ezberdindu nahi genituela. Baina polita iruditu zitzaigun izenaren eta gaur garenaren arteko trantsizio hori nolabait adieraztea. Hala, mitologiaren hariari tiraka, izenaren bidez errepresentatu dugu aldaketa hori. Hortik *Neomak*, “ilargi berriak” esan nahi du grekeraz.

Berriz elkartzearekin batera sortu



genuen lehenengo kanta izan zen atera berri duguna, eta gure aurkezpen-kanta delako jarri diogu *Ilargi berriak* izena. Ezin hobeto azaltzen du nondik gatozen, etena eta nora goazen. Behin eta berriz aipatzen dugu: “*Ilargi berriak*, lagun zaharren ondoan”.

Indartsu dator lehendabiziko kanta hau, eta badu tradizioetik asko; tradizioetik edan duzue gaztetxotan. Baina oraingo emakumeak zaretenez, oraingotik ere izango du, ezta?

Oinarrian, gure sustraiak tradizioan errotuta daude. Gure aurrekoetatik edan dugu. Hala ere, gizartea aldatzen doan heinean, musikaren ikuspegia eta sortzeko era aldatzea modu naturalean gertatzen da. Pixkanaka, zenbait estilotan ari dira loratzen trikitia eta panderoa, eta baita folk musika ere. Eta loratze horri esker iraungo du denboran.

Errespetu eta mirespen osoz, tradizionalak diren instrumentuekin esperimintatuko dugu. Beste musika estilo batzuen zertzeladak izango dituzte gure doinuek, eta letra aldarrikatzaileak. Estetikari dagokionez, berriz, gure estetika apurtzailea dela esango nuke.

Hilabeteetako geldiuonearen ostean, bueltan da Brigade Loco

Iazko kontzertu-bira amaitu ondoren, atseden hartu zuen Brigade Loco musika taldeak pasa den azaroan. Baina, emanaldiak alboratuta izan dituzten arren, boskotearen jarduna ez da eten hilabeteotan eta proiektu berrien sukaldoko lanetan aritu dira buru-belarri. Esku artean dituzten proiektu horien artean dago, hain zuzen ere, azken egunetan bideoklip formatuan kaleratu den *Beldurra* abesti berria. Iruñeko Sound of Sirens estudioan grabatu eta nahastu da kanta, Julen Urzaiz teknikariaren esku-tik, eta Izaro Gallastegik grabatutako irudiekin osatu da bideoklipa (YouTube plataforman ikusgai).

Lander Aznal abeslariaren esanetan, “abesti honekin buruko gaixotasunek zein egungo egoerak sortutako antsietate, estres eta depresioak ikusgarri bihurtu eta hauek gainditzeko indarrak eman nahi ditugu”. Musikalki, Brigade Loco ez da bere betiko soinu-etatik gehiegi aldendu lan berri honetan, “punk-rock estiloaren baitan, ahots urratuek, baxu indartsu eta kitarra melodikoek gure soinuaren parte izaten jarraitzen baitute”.

Lan berriaz gain, Euskal Herri-tik kanpo hainbat kontzertu lotzeko aukera ere izan du taldeak. Madril, Hanburgo, Berlin, Tarragona eta Lleidan arituko dira, besteak beste, zuzenekoetan.

Bestalde, Brigade Locon abeslari jarduteaz gain, Aznalek Odolkiak Ordainetan eta Screammers & Sinners taldeek elkarrekin atera berri duten LPko *Sarraskia* abestian ere kolaboratu du.



Pilar Saenz tabernaria

“Jende askok sentitu du Maxi bere etxea dela, eta norbere herrian hori entzutea zoragarria da”

Maxi Bar-ek otsailaren amaieran itxiko du pertsiana behin betiko, ia 40 urteko ibilbidea egin ondoren. Erreferentziazko lekua izan da belaunaldi askorentzat, 60ko hamarkada hasieran Maxi Elizondok (Pilar eta Miren Saenzen amak) bertan gozotegia zabaldu zuenetik. Eta, dudarik gabe, lokalaren itxiera ez da oharkabean pasa herrian; tabernariak “zeharo hunkituta” daude azken asteotan bezeroen partetik jasotako omenaldi edota esker oneko keinuekin.

Lokalaren historia eta berezitasunak, bizipenak... Piliberekin izan gara *berriketan*, pertsiana azkenekoz itxi aurretik.



Noiz zabaldu zenuten taberna?

1982ko uztailaren 15ean, Rolling Stones taldeak Madrilen eman zuen kontzertua baino astebete beranduago. Jose Alberto Urbietak, kamerinoa dekoratu zienak, dekoratuko palmeretako bat ekarri zuen tabernarako opari. Palmera hain zen handia ia espazio osoa hartzen zuen, eta ez zegoen beste ezerentzako lekurik, beraz, atera egin behar izan genuen. Hori kontatzen dut ordutik itxiera egunera arte, berak nahiz Susi Murielek eta, behin edo behin, baita Alberto Salegik ere, inauterietan, San Rokeetan edo gabonetan urtero dekoratu eta mozorrotu izan dutelako.

Lokalak historia luzeagoa du, ezta?

Ez dakit data zehatza, segur aski 60ko hamarkadaren hasieran, nire amak, Maxi Elizondok, lokala alokatu eta Elizondo gozotegia jarri zuenean bertan, lehendabiziki txurro eta pastekin. Beranduago, izozki, pipa eta haur-komikien alboan, dibertimenduzko jokoak ipini zituen: petakoak, futbolinak, ping-pong eta billar-mahai bana. Eta horrez gain, disko-makina bat, ABBaren kantuetatik hasi eta American Pay-enetara zituenak. Jendeak establezimenduari *Maxi* deitzen zion eta ume, gazte eta helduak etortzen ziren. Hortaz, taberna ireki nuenean, Maxi Bar jartzea erabaki nuen eta *Maxi* izaten jarraitu zuen.

Ama lehenik; gero zeu. Bi belaunaldietan emakumea gidari negozioa aurrera eramaten. Zein harrera izan zenuten?

Oso ondo hartu gintuzten. Amak oso izaera ona zuen, jatorra, langilea... gizatasun handiko pertsona zen, eta maitagarria. Nik 20 urte nituen pertsiana jaso nuenean. Albertorekin ireki nuen, lehenengo bost urteetan egon zen bera, 24 urte zituen. Orain pentsatzen jarrita... ze gazteak ginen!

Lokalak hainbat funtzio izan ditu. Negozio familiarra izan da beti?

Egia esan, gozotegia amak jarri zuen eta berak hartzen zuen lanaren zatirik handiena bere gain. Nire aitak, Alfredok, bere lan propioa zuen, Telefonikako langile izan zen bizitza osoan zehar. Baina negozio hauetan gertatzen den moduan, era batera edo bestera, denok lagundu behar izaten genuen, bereziki aitak. “Sala de juegos” zenean ere egon zen Debako jendea lanean. Taberna, berriz, nire kontua izan zen.

Ia 40 urteko ibilbidea egin duzue tabernan. Erraz esaten da...

Denbora hegan joaten da, bizitza erdia da. Eta seguruenik taberna batean gehiago igartzen da, intentsitatearengatik esango nuke (ordutegiak, jendaurreko lana...).

Herritarren elkargune izan zarete, belaunaldiz belaunaldi.

Hala dela sinetsi nahi nuke. Barratik jende asko pasa da, gehienak debarrak edo herrian bizi zirenak; inguruko herrietakoak ere bai. Lehenengo egunetik egon den zerbitzari bat ere izan dugu, *Txuri*, eta orain jubilatua egingo da. Zerbitzarietako batzuek hemen sinatu zuten beren lehen kontratua eta gero beste lanbide batzuk aurkitu zituzten. Azken labealdiak *Txuri* eta *Tutxo* bezalako beteranoak Miren edo Jon bezalako gazteekin konbinatu ditu. Bezeroekin ere antzeko zerbait gertatzen da, duela 40 urte gehienok gazteak ginen, baina denbora pasatzearekin batera, hirurogei urtekoek eta hogeikoek bat egin dute bertan. Maxirako ez da adinik egon.

Herriko historiaren lekuko eta parte izan da Maxi Bar. Baina historia liburu ofizialetan jasotzen ez diren gertaera, anekdota eta sekretu edo konfesio ugari eramango dituzue zuek gordeta...!

Ke ba! Istorio gehienak ezagunak dira eta bezeroek oso ondo ezagutzen dituzte. Gardenak gara, gertatzen dena da bakoitzak bere bizipen propioak bizi izan dituela eta seguruenik horietako batzuek tabernarekin izango dute zerikusia, une hobekin edo okerragoekin, bizitzan gertatzen den bezalaxe. Tabernak topalekuak dira,

ondo pasatzeko eta sozializatzeko tokiak, baina baita garagardo batekin freskatu, norbere penak kontatu, musika entzun, prentsa irakurri, dantza egin edo une bat partekatzeko lekuak ere. Hori bai, denek diote festetan igarriko dela Maxiren falta.

Zein izan da garai zailenetan ere taberna zabalik mantentzeko gakoa?

Jendearen konstantzia eta fidelotasuna, nahiz eta une zailak ere izan diren. Neguak luzeak dira Deban, jende gutxi dago, eta uda sasoiaren ateratakoarekin bizi-raun beharra dago alokairuaren errenta, autonomoak, kontratuak, soldadak, egileen sozietatearen baimenak... ordaindu ahal izateko. 2008ko krisiak edo egungo pandemiak oso gogor kolpatu dute ostalaritza eta gu ez gara salbuespen izan, baina mundua dagoen bezala egonda ez dut negarrik egin nahi; hori da dagoena eta kitto.

Musika, futbolina, kirol partiden emankizunak telebistan...

Bai, musika beti izan da konstante bat. Lokalean etengabe jarrita izateaz gain, talde askok jo izan dute: A Santo de qué-k edo Josu Salegik (Musikeneko beste kide batzuekin) gozamina diren *jam session*-ak eginez; edo Retrallica eta Marlon Blandok. Eta beste euskal musikari batzuk ere izan dira: Gari, The Grace of Dionysus, Lukiek, Joseba B. Lenoir... Futbolinari dagokionez, ondo zetorren lokalarekin (garai zaharrei keinu bat), eta telebista kirola elkarrekin ikusteko zen batez ere, bereziki futbola, txirringularitza eta pilota. Realaren garai-penak taldean gehiago gozatzen dira, eta porrotak hobeto eramaten.

Herriko hainbat elkarteren ekintzeta-rako eszenatoki ere izan da, ezta?

Batzuetan, Goaz Antzerki Taldeak Antzerki Asteko obraren bat bertan emateko programatzen zuen, luxu hutsa. Monologoren bat edo beste, Udalak antolatzen zituen animaziozko film laburrak ere bai... Zineman leku txikia izan du, baina izan, izan du: orain dela urte dezente film labur baterako eszena batzuk filmatu ziren.

“Jendearen konstantzia eta fidelotasuna izan dira hainbeste urtez taberna zabalik mantentzeko gakoa”

Bezeroak etxean bezala sentiarazi dituzue. Horren adibide da urtarrilean jasotako esker oneko agurra eta omenaldi xume bezain ederra. Pozik?

Super pozik! Zeharo hunkigarria izan da eta, gure ustez, apala baino, sekulakoa izan da. Ez dago gure esker ona erakusteko hitzik. Pankartak zioen esaldiarekin bakarrik pozik egongo ginatkeen: “Eskerrik asko Maxi, betirako gure etxea”. Jende askok sentitu du bere etxea dela, eta zure herrian hori entzutea zoragarria da. Dena: aureskutik hasi eta *Debako Martxa* jo zuen bandara arte; jendea saltoka ari zela, batzuk tabernako logodun kamiseta soinean. Gure aurpegiekin kareta ere egin zituzten, eta etengabe eskerrak eman eta esaten zituzten tabernaren falta izuga-

rri sumatuko dutela. Egundoko agurra, negarrik ez egiteko moduan... Zirrargarri eta ahaztezina.

Zer sentsazioarekin jaitsiko duzue pertsiana azkenekoz?

Pena eta arintzearen arteko nahasketa da. Erabakia ez zen gurea, eraikina eraitsi behar dutelako desagertzen da taberna, baina momentua iritsi da eta aurrera begiratu beharra dago. Kanean, jendea animo ugari ari zaigu ematen.

Atzera begira jarrita, zer kendu dizue Maxik? Eta zer eman?

Uff, agian, osasuna kendu digu. Jatekoa emateaz gain lagun asko ere eman dizkigu, poz mordoa, baina baita disgustuak ere. Denetarik izan behar da...

Merezitako atsedena dia datorkizue orain. Zer eskatzen diozue etorkizunari?

Lasaitasuna. Momentuz dena desmuntatzen ari gara. Oroigarriren bat nahi zuten bezeroei edo aprobetxatuko zituztenei banatu dizkiegu gauza batzuk, eta beste batzuk geuk gorde ditugu. Baten bat hor ibili zen azulejoak eramanez nahi zituela tematuta; horrek zerbait esan nahi du!

Zuenak dira azken lerroak. Esan nahi duzuen esateko “barra libre” duzue...

Topa egin beharko dugu, irudimenean bada ere, hori da-eta barra libreetan egiten dena. Topa dauden denengatik eta egon ez arren Maxi beren sentitu izan dutenengatik. Haiek denek lortu dute Maxi izan dena izatea. Mila esker denengatik, eta ikusiko dugu elkar, hor zehar.



Maxiko familia-argazkia; Pablo, Pili, Txuri eta Tutxo taberna jasotzen.

Javier Berasaluce Markiegi futbolari ohia zendu da

Debako Amaiak Bat Futbol Klubaren historian sari eta titulu gehien lortu dituen Javier Berasaluce Markiegi jokalaria joan den otsailaren 8an hil zen, 91 urterekin.

1931ko urtarrilean Deban jaioa, Berasaluce atezain izan zen hainbat futbol taldetan; Amaiak Baten aritu ondoren, Real Sociedadek fitxatu zuen 1950ean. Bi urte beranduago Alavesera joan zen eta 1955ean Real Madrileria; han jokatu zuen 1960ra bitartean. Azken hiru denboraldiak Racing Santanderren egin zituen eta han utzi zion atezain izateari.

Amaiak Bat klubak gogorarazi bezala, "Alavesen izarra izan zen Berasaluce, baina Real Madrilen ikutu zuen zerua"; Europako bost kopa (segidan), Espainiako bi liga eta Kopa Latina bat irabazi zituen bertan, hain justu.

Futbolariaren ibilbidea goraiatu dute Euskal Herriko zein Espainiako hainbat eta hainbat hedabidek haren heriotzaren berri izan bezain pronto. Amaiak Batek ez ezik, Alavesek edota Real Madrilek ere begirunez nabarmendu dute Berasaluceren jarduna eta dolumina agertu diete haien gertuko eta senideei.



Berasaluce Real Madrilen aurpezpen ekitaldian (1955ean).

Oihane Hernandez Taldekako Euskadiko Txapelketaren finalaurrekora Oñatz tenis klubarekin

Joan den otsailaren 5ean, 3-1 irabazi zioten Oñatz tenis klubeko neskek Jolaseta taldeari, Getxoko (Bizkaia) Jolasetan jokatutako partidari, eta, horrela, Euskadiko Taldekako Txapelketaren finalaurrekora sailkatu dira.

Oihane Hernandez debarrak eta Izaro Sarasua eta Naike Oiartzabal azpeitiarrek osatu zuten Oñatz tenis klubeko taldea. Banakakoetan, Izaro Sarasua Jolasetako Daniela Del Camporen aurka nagusitu zen, 6-0 eta 6-1. Naike Oiartzabal ere nagusi izan zen Ines Casaresen aurka, eta 6-0 eta 6-0 gailendu zen markagailuan. Oihane Hernandezek, ordea, ezin izan zuen bere partidari irabazi, eta 2-6 eta 1-6 galdu zuen Irene Cortijoren aurka.

Binakako partidari, Sarasuak eta Oiartzabalek osatutako bikoteak puntu erabakiorra lortu zuen Del Camporen eta Casaresen aurka 6-4 eta 6-1 irabazita.

Emaitza horiekin, Oñatz tenis kluba Euskadiko Taldekako Txapelketaren finalaurrekora sailkatu da. Oñatzeko neskek Pinter tenis klubaren aurka jokatuko dute kanporaketa martxoaren 12-13ko asteburuan.

Hamar urte ditu Oihane Hernandezek eta Debako Luaran tenis klubean hiru urte daramatza.

Luaran tenis kluba bost urtez Deban

Badira bost urte Luaran tenis kluba Deban ere tenis-eskolak ematen hasi zela. Era horretan, egun, Deba, Markina-Xemein eta Mutrikuko 120 ikaslek osatzen dute kluba eta horietatik 70 dira debarrak.

Debako eskolari dagokionez, bost urtetik gorako ikasleak hartzen ditu eskolak, eta astean saio bat egin ohi dute. Urtean zehar, berriz, bospasei ekitaldi edo topaketa ere egiten dituzte Deba, Mutriku eta Markina-Xemeinen, tenis-ikasleek elkar ezagutzeko helburuz.

Ikasle hauek, nahi izanez gero, federatu eta lehiatzeko aukera ere badute, baina gai horri lotuta arazo batekin egin zuten topo herrian; izan ere, Debako kiroldegiak ez zituen horretarako beharrezko baldintzak betetzen, gutxienez bi pista behar izaten direlako. Hori horrela, federatu eta lehiatu ahal izateko Oñatz tenis klubean ematen dute izena Debako tenis-ikasleek.



Tenis-ikasleek elkar ezagutzeko egindako topaketetako bat.

Nur Yue Yeregui

19 urte, Elorriaga auzoa, Itziar

Gastronomia eta Sukaldaritza
Arteak graduaren lehen maila
ikasten ari da Mondragon
Unibertsitateko Gastronomia eta
Zientzien Fakultatea-Basque
Culinary Centerren



“Sukaldean egiteaz aparte, bezeroekiko zerbitzua, kultura, enpresa kudeaketa eta zientziak ere lantzen ditugu”

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?

Gastronomia eta Sukaldaritza Arteko gradua egiten hasi baino lehen, Enpresen Administrazio eta Kudeaketa eta Zuzenbidea gradu bikoitza egiten hasi nintzen. Zoritxarrez, ez nintzen gustura sentitzen eta graduz aldatzea erabaki nuen. Sukaldean aritzeaz gain oso gogoko dut musika, batez ere musika klasikoa. Pianoa eta biolina jotzen ditut.

Zergatik aukeratu zenuen Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Txikitatik asko gustatu izan zait sukaldean aritzea baina gradu hau aukeratzera gehien bultzatu ninduen Basque Culinary Centerren ikasten aritu zen ikasle bat izan zen. Orain dela hamar urte, txinatar bat izan genuen etxean hara joaten zena Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak gradua ikastera, eta gogoan ditut hark egiten zituen plater gozoak. Une hartatik aurrera hasi nintzen etxean kozinatzen eta ordutik gogoan izan dut Basque Culinary Centerren ikastera etortzeko aukera. Horrez gain, beti entzun izan ditut

Mondragon Unibertsitateak eskaintzen duen ikasketa planari buruzko kritika onak.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Guztiz aldatu nau Basque Culinary Centerren ikasten hasi izanak, guztiz ezberdina da eta hemen jasotzen dudana ikasteko modua. Dena oso ondo dago antolatuta, teoriaren gain praktika asko egiten ditugu, tailerretan batez ere. Lehenengo mailan dagoeneko zerbitzu bat jartzen digute eskaintzeko, aurreko urteko ikasleen laguntza jasoz. Talde-lan ugari egiten ditugu ikasturtean zehar, horrek asko lagundu dit nire konfiantza lantzen. Talde-lanean aritzea zein garrantzitsua den ulertu dut, eta baita ere zaila dela talde batean denekin erlazio ona izatea.

Nola definituko zenuke Basque Culinary Centerren jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Basque Culinary Centerren ez digute ondo kozinatzen bakarrik erakusten. Esparru ezberdin ugari lantzen ditugu irakasgai bakoitzean, hau da, sukaldean egiteaz aparte bezeroak zerbitzatzeko, kultura, enpresa kudeaketa eta zientziak ere lantzen ditugu. Hemen nagoe-

netik, garbi utzi didate Gastronomia eta Sukaldaritza Artean garrantzitsua dela plater bakoitzaren atzean dagoen historia eta lana ezagutzea. Hitz gutxitan, BCCk eskaintzen duen prestakuntza oso aberatsa da eta ate ugari irekitzen dizkigu gastronomia munduan.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Orain arte gehien gustatu zaidana ikaskideak eta tailerrak izan dira. Tailerretan teknika berri asko ikasi ditut eta irakasleak beti egoten dira laguntzeko prest. Basque Culinary Centerrek dituen gauza onetako bat atzerriko ikasle ugari dituela da. Unibertsitatean dugun giroa asko gustatzen zait, kultura ezberdinekoak izan arren, oso ondo moldatzen gara eta geure bizilekuko gauzak partekatzen ditugu.

Zer nolako ekarpena egiten dizu praktikak egiteak?

Praktikak egitea oso garrantzitsua da. Beti esango dut ondo ikasteko modurik egokiena “egiten” ala “huts egiten” dela. Basque Culinary Centerren lehenengo mailatik hasten gara praktikak egiten, eta asko eskertzen dut aukera hori izatea, gure gaitasunak hobetzen eta indartzen laguntzen digu eta.



Deba eta Mutriku lotzen dituen zubiko lanak laster amaituko dituzte, erori zenetik hiru urte eta erdi direla

Azken txanpan sartuak dira zubiko lanak, eta apirilean oinez zeharkatzeko moduan izango dela adierazi dute Gipuzkoako Foru Aldundiko iturriek.

2018ko uztailaren 5ean, goizeko 5:00etan gutxi gorabehera, Deba eta Mutriku lotzen dituen zubia zati batean hondoratu egin zen. Hartziko zubia izan arren, azpiko zimenduak zurezkoak izaten dituzte horrelako zubiek eta xilofagoek (zomorro egurjalea) eragin zuten, euriteen laguntzarekin, bere erdialdean eusten zuen zutabe bat jaustea. Hiru urte eta erdi baino gehixeago pasa behar izan dira berreraikitze-lanak beren amaierara iritsi arte, baina, badirudi, orain dela 155 urtetik hona (azkenaldian oinez lehen ibilgailuz ere bai) Deba ibaiko urak igarotzeko hain garrantzitsu izan zaigun zubia laster itzuliko dela berriz bere onera.

Ari da berreskuratzen ohiko itxura oinezkoen zubia, eusten laguntzen zion burdinazko egitura gorria kenduta. Arazo berezirik sortu ez bada ere, pixka bat atzeratu dira lanak, eta aurreikuspena obrak hilabete honetan amaitzea bazen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalarari jakinarazi dio atzeratu egingo direla. Udalaren esanetan, zenbaterainoko atzerapena izango duen ez du oraindik zehaztu Aldundiak. Nolanahi ere, Josu Maroto Gipuzkoako Foru

Aldundiko Ondare Saileko arkitektoak Euskaldi Irratiko Faktoria saioan aipatu duenez, apirilerako zabalik egongo da oinezkoentzat.

Larrialdi fasean mikropilote batzuk jarri zituzten, eta otsailan zehar betetze-lanak egiten dihardute, falta diren 26 mikropiloteak egin eta zubia bere mailaraino igotzeko helburuarekin, Udalarari jakinarazi diotenez.

2018an amildu baino lehen beste mugimendu batzuk ere izan zituzten zubiak eta bere onera ekartzeko lanak egiten dabilta. Oin horien azpiak ziurtatu eta sendotu egingo dituzte hondoratuko ez direla ziurtatzeko.

Hurrengo urratsean, zerbitzu- eta kanalizazio-azpiegiturak berriro instalatu, ingurua berrurbanizatu, zorua berritu eta zubiko baranda berregitea izango dira egiteko nagusiak.

Ikusmin handia piztu du zubia berritzeko prozesuak eta obraren ondoan jarritako informazio-kasetara ere jendea erruz aritu da bisitan joaten, maketa, plano eta abarrak ikusteko.

Berreraikitze faseak

Zubia berreraikitze lanek bi fase izan dituzte: lehenengoa larrialdi fasea izan zen; fase horretan tamaina handiko egitura

Aurreikuspenen arabera, apirilerako zabalik egongo da zubia, berriz bere lehengo mailaraino igota

Seven Clovers
Irish pub
943 191 295

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA
✉ Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
☎ Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282
🌐 sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

LAMARIANO
Oinetakoak
Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52

osagarri metaliko bat ipini zuten zubi gainean, lehen eta hirugarren zutabeen gainean, kolapsatu zen gangari eusteko. Hurrengo fasean, berriz, zubia piezaz pieza eta harriz harri desmuntatu dute, eta gero berriro eraiki, jatorrizko planoaren arabera.

Bigarren faseko lanak iazko apirilaren 14an hasi zituzten Moyua-Harri aldi baterako enpresa-elkarteko langileek, eta zubia itxita egon da azaroaren 22az geroztik. Maiatzaren 26an lanoi buruzko hitzaldi bat eman zuten Debako udaletxean. Solasaldi horretan azaldu zen obra-proiektuaren helburua: zubiaren egonkortasuna bere osotasunean bermatzea, eta gainera, zubiaren instalazioak eta urbanizazioa hobetzea, bi ibaiertzen artean dagoen oinezkoen komunikazioari ahalik eta denbora luzeenean eutsiz.

Esku hartzearen kostu osoa 7.131.153,58 eurokoa izan da: 3.611.822,75 euro larrialdi faseko lanei dagozkie eta 3.519.330,83 euro bigarren faseko lanei.

Elkarbizitzarako garrantzitsua

Asko dira zubiaren alde batean bizi, baina egunerokoan ibaiaren beste aldera jotzen duten Urazamendikeko auzotarrak. Horregatik, zubia ixteak 300 bat herritarri sortu dizkion eragozpenen harira, bizilagun ugari protesta egin dute 2018az geroztik, "Pasabidea orain" eta "Pasabidea guztiontzat" ziotela (edo doako autobus-zerbitzua eskatuz, adibidez). 2019an ere ehunka lagunek bat egin zuten haiek deitutako aldarrikapen-mobilizazioekin.

Zubi zaharraren gainean ezarritako behin-behineko pasabideak ere ez zuten herritar guztien arazoa konpondu, ezin izan baitute hura erabili mugikortasun urriko pertsonak, haurkotxeek eta min hartuta daudenek, besteak beste.



Ander Salegi



Arteondo
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

LK Home

Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria
688763289 • inmolhome@gmail.com

SGO

SANTIAGO GARCIA ORDOÑEZ
Abokatu eta ekonomialari elkartuak
Zerbitzu juridikoak
670 411 444
centrolegal@sgoabogados.eus



IOSU ARRAIZ ARANBURU Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko presidentea

Iosu Arraiz Aranburu jeltzalea (Elgoibar, 1991) 2019ko uztailaren 26tik da Debabarreneko Mankomunitateko presidentea. Hondakinen gaikako bilketa da bere ardura nagusietako bat. Azpimarratu du, kosta egiten den arren, apurka-apurka herritarrak ari direla ohiturak aldatzen.

“Erronka nagusia da errefus kopurua gutxitzea”

Mankomunitatearen 15 milioi euroko aurrekontutik 9 milioi euro pasa bideratuko dituzue hiri-hondakinen bilketara. Zelan banatzen da herrika?

Mankomunitateak eskaintzen duen zerbitzua komuna da, ez da herrien arabera bereizten. 9 milioi euro horien barruan sartzen dira, besteak beste, inbertsioak. 2019tik 1,3 milioi euro bideratzen dira inbertsioetara, kale garbiketara, administrazioa... Hondakin bilketarekin lotuta, aurtengo inbertsioak izango dira baliabideak berritzeko, iaz moduan: kamioiak, konpostagailuak, edukiontziak...

Lurrazpiko edukiontziak erretiratzen ari zarete, ezta?

Bai, iaz ordezkatu genituen lu-

rrazpiko 52 edukiontzi lurrazalekoengatik. Egoera ikusita eta herritarrei sortzen zizkieten arazoak kontuan hartuta erabaki genuen aldatzea, gainera, mantentze-kostu altua dute. Bestalde, orain, lurrazalekoengatik aldatu ez diren lurpeko edukiontziak berritzen ari gara, egoera txarrean zeudenak eta hainbat arrazoirengatik lurrazalekoengatik aldatu ezin izan direnak. Elgoibarren hasi gara lanean eta berrituko ditugu Ermuan, Eibarren eta Mutrikun, guztira, 65 edukiontzi, urtea amaitu aurretik.

Bilketa selektiboaren datuen arabera, 2017tik (%48,88) 2018ra (%53,55) izan zen gaikako bilketan igoera nabarmenena; harrezkero,

gutxiago igo da edo bere horretan mantendu da. Zein da helburua?

Igotzen joan da, batik bat, sisteman berrikuntzak sartu izan direnean, adibidez, organikoaren bilketa, errefusarena... Gero, egonkortu egin dira datuak. Hau sirimiri bezalakoa da; jendearen ohitura aldatetean eragitea ez da batere erraza, poliki-poliki doa bustitzen eta ohitura berriak barneratzen. Hala ere, helburua da hazten segitzea. Ari gara sistema aztertzen, bilketa hobetzeko, herritarrei erraztasunak emateko eta eragin-korrago bilakatzeko. Dena den, oro har, datuek hobera egin dute eskualdeko herri guztietan. Gaikako bilketan %55 inguruan gaude eskualde mailan.

Zein kopuru nahi duzue lortu?

2020rako ezarrita zegoen gaika %40 batzea, hori gainditu egiten dugu. 2025erako %50a dago ezarrita. Hori ere bete dugu. 2030erako dugun helburua da %70erainoko gaikako bilketa lortzea.

Zer da gehien kostatzen dena?

Ontzi arinak batzea. Sortutako hondakinen artetik ontzi kopurua zenbatekoa den kontuan hartuta, gutxi batzen dugu. Azkenean, ia dena da plastikoa. Erroka nagusia, berriz, da errefus kopurua txikitzea.

Debagoienarekin konparatuz, adibidez, ia 20 puntu beherago dago Debabarrena (Debagoieneko gaikako bilketa da %74,54). Aztertu duzue arrazoiak?

Eskualde bakoitzak bere garaipena egin du hondakinen bilketan. Gipuzkoan daude batzuk guk baino gehiago biltzen dutenak eta beste batzuk gutxiago. Guk gure bidea dugu eta nahi dugu hor sakondu, herritarren, enpresen eta gizarteko beste kolektibo batzuen laguntzarekin. Nik uste dut sisteman baino, eragin behar dugula ohituretan.

Europako beste herrialde batzuekin alderatuta, baxua da hemengo gaikako bilketa; berrerabiltzeko ohitura ere ez dago horren barneratuta... Kontzientziario falta dago, akaso?

Iaz egin genuen kanpaina hondakin gutxiago sortzeko eta berrerabiltzeko... Uste dut bogan dagoela bigarren eskuko produktuak erostea, adibidez, Internetez. Herrietan ere bigarren eskuko gero eta azoka gehiago egiten dira. Nik esango nuke, orain arte bigarren eskuko arroparik –familiarik kanpokorik– ez genuela ia nahi eta orain gero eta gehiago erabiltzen edo erosten dela. Uste dut badagoela aldaketa. Konpondu, berrerabili eta bigarren eskuak salerosi egin behar dira. Zenbat

eta gutxiago sortu orduan eta gutxiago izango dugu gaika biltzeko. Gaika biltzea azken alternatiba da.

Enpresen hondakinak ere batzen dituzue. Nahikoa birziklatzen dute?

Industrialdeetan batzen dugu egurra, papera, ontzi arinak, bio-hondakinak eta errefusa, hiriko hondakinekin pareka daitezkeenak. Orain, industrialdeetara bisitak egiten ari gara, gogorarazteko ezin dutela jarduera industrialarekin lotura duten hondakinak errefusera bota, adibidez, txirbilak, tailer mekaniko- etako olio poteak... Horiek dira euren jarduera ekonomikoan sortzen dituzten hondakinak eta bakoitzak bere tratamendua behar du. Hori ez da gure arduren barruan sartzen.

“Sortutako hondakinen artetik gehien kostatzen dena da ontzi arinak batzea”

Garbiguneetara zer bota daiteke?

Aparailu elektronikoa eta elektrikoaren hondakinak, pintura latak, olio potoak... Hau da, partikularrek etxetan sortzen dituzten hondakin arriskutsuak. Gremio txikiek ere erabil ditzakete, adibidez, margolari autonomo batek. Baina mugak daude: 250 kilo asteko, eta, obra hondakina bada –amiantorik gabekoa beti–, 500 kilo astero. Lau garbigune daude: Elgoibarren, Ermuan, Eibarren eta Mutrikin. Eibarkoa eta Elgoibarkoa dira berrienak eta handienak. Ermukoaren kokapena ez da aproposena eta tamaina aldetik ez du horrenbeste erraztasun. Hori hobetu beharra dago. Mutrikoak, berriz, ondo dago, erdibidean.

Urruzuno itxi zen. Nora eramaten dira hara zihoazen hondakinak?

2007an itxi zen. Orain zigilatzen ari gara ingurunea, esparrua berreskuratzeko garantia guztiakin. Kapa begetala eta belarra landatuko dizkiogu azalean. Urruzunora ez dira inoiz eraman hiri hondakinak, hondakin inerteak, baizik. Hara eramaten ziren bolumen handiko hondakinak, gaur egun, Zubietara eramaten dira, egurra Kanpanzarerra eta plastikoak Aizarnazabalera. Osterantzean, hondakinei dagokienez, errefusa eramaten da Zubietako ingurumen zentrora, organikoaren zati bat Epeleko konpost-plantara, beste bat Zubietako bio-metanizazio plantara, ontzi arinak Legazpiko planta batera, papera eta kartoia Zornotzako Saica Natur enpresara eta beira Ecovidiora. Bakoitzak bere trataera du, ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

Pandemiarekin kendu egin zen edukiontzien txip sistema. Horrek eraginen bat izan du bilketan?

Mantendu egin dira datuak. Ez dugu ikusi okerrera egin dutenik. Beraz, orain gaude aztertzen zer egin, ea merezi duen txipa ipintzerik edo frakzio jakinen batean ipintzea...

Bi urte Zaldibarren hondamendia gertatu zenetik; zelan ikusten duzu egoera?

Gure lan errotik kanpo geratzen da Zaldibar. Dakiten pertsonak edo adituek hori argitzea nahiko genuke. Guri dagokigunez, gure hondakinak bideratuta ditugu eta hondakin horietatik ahalik eta gehien aprobetxatzea da asmoa. Helburua da hondakindegietara ahalik eta gutxien botatzea.

Besterik nahi baduzu gaineratu...

Gogoraraztea birziklatu egin behar dela eta ekonomikoki eta ingurumenarentzat ezinbestekoa dela gutxiago sortzea.

Erredakzioaren oharra:

*Ekimenak COVID-19ak eragiten duen egoeraren baitan egongo dira, beraz, aldaketak egon daitezke programazioan.

OTSAILAK 25, OSTIRALA

-17:00. **Kalejira:** Deba Musikaleko ikasleak.
-18:30. Haurrentzako jokoak, **Erronka-jolasa**, Kolore Anitzen eskutik, Aldats pilotalekuan.

OTSAILAK 26, LARUNBATA

-**Mozorro-lehiaketa** egunean zehar (banaka eta taldeka). *Photocall*-a udaletxe azpian.
-13:00. **Kalejira:** Debako Musika Banda.
-17:30. **Antzerki eta zirku ikuskizuna:** "Txoriak txori", Foruen plazan.
-19:30 (eta 20:30). **Txaranga:** Akelarre.
-20:00. **Sari-banaketa** (mozorro-lehia), plazan.

OTSAILAK 28, ASTELEHENA

-10:00. Markina-Xemein, Mutriku eta Debako ikasleen **tenis-ekitaldia** kiroldegiko pistan.
-19:00. **Irakurketa kluba:** "La levedad" (Catherine Meurisse), Ostolaza liburutegian.

MARTXOAK 1, ASTEARTEA

-17:00. *Mozorro Show-a*, Gaztelekuaren eskutik.

MARTXOAK 5, LARUNBATA

-12:00. Eraso Sexisten Aurkako Protokoloa sortzeko **asanblada irekia**, Kultur Elkartean.

MARTXOAK 6, IGANDEA

-12:00. **Bisita gidatua:** "Flysch beltza". Informazio gehiagorako: www.geoparkea.eus.

MARTXOAK 7, ASTELEHENA

-12:00. **Pentsiodunen mobilizazioa**, plazan.

MARTXOAK 8, ASTEARTEA

● -19:00. **Emakumeen Nazioarteko Eguna. Manifestazioa**, DIT Feministak deituta, Foruen plazan (M8aren inguruan antolatuta-ko gitarau osoa 7. orrialdean ikusgai).

MARTXOAK 12, LARUNBATA

-16:00. **Bisita gidatua:** "Gotikoaren altxorra, Deban". Informazioa: www.geoparkea.eus.

MARTXOAK 13, IGANDEA

-18:30. Debadezineren urteko **batzar nagusia**.
-19:00. **Zinema:** "Maixabel", Debadezineren eskutik, Kultur Elkartean.

MARTXOAK 20, IGANDEA

-7:30. **V. Lasturko Mendi Martxa**. Informazio gehiagorako: www.kirolprobak.com.

MARTXOAK 21, ASTELEHENA

-12:00. **Pentsiodunen mobilizazioa**, plazan.

MARTXOAK 25, ostirala

-20:00. **Musika kontzertua:** Esti eta Mikel Markez, Kultur Elkarteko aretoan.

"Begiradak"

-*Begiradak* emanaldia egingo da uztailean, *Iturri Ondoan* ekimenaren barruan, eta izena emateko epea zabalik dago martxoaren 11ra arte. Interesatuak 688663744 telefonora deitu edo euskara@deba.eus-era idatzi dezakete.

Tene Mujika ilustrazio beka

-Debako Udalak Tene Mujika ilustrazio sari-keta antolatu du hura hil zela 40 urte bete diren ikasturtean egingo diren ekimenen irudia sortzeko. Martxoaren 15erako aurkeztu behar dira lanak. Informazioa: www.deba.eus.

Udalerrri euskaldunetako gazteen topaketak

-Ekainaren 27tik uztailearen 3ra egingo dira udalerrri euskaldunetako gazteen udalekuak, 2004 eta 2007 urteen artean jaiotakoei zuzenduta. Martxoaren 31ra arte eman daitezke izena. Informazioa: www.uema.eus.

...eta Debabarrenean zer? Eskualdeko hainbat plan interesgarri

OTSAILAK 25, OSTIRALA

Elgoibar
-19:00. **Kontzertua:** Zelanda eta Dientes de luna, Herriko Antzokian. Sarrerak erosteko: www.herrikoantzokia.eus.

MARTXOAK 5, LARUNBATA

Ermua
-16:00/18:00. **Kontzertua:** *Golazen8.0*, Ermua antzokian. Goazen telesaileko protagonisten kontzertu-bira berriaren barruan.

MARTXOAK 16, ASTEAZKENA

Eibar
-*Euskararen sozializazioa eta transmisioa XII. mintegia*, Armeria Eskolako areto nagusian (aurrez aurre edo streaming bidez).



ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: otsailak 25, 26, 27, martxoak 7, 8, 9, 10.

Burgoa Zuazo: martxoak 11, 12, 13, 21, 22, 23, 24.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik.
Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI | 669 262 201
BURGOA ZUAZO | 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: otsailak 26 / martxoak 5
BURGOA ZUAZO: martxoak 12 eta 19



**PILARIK GABEKO
AUDIFONOAK
PROBATU
HILABETEZ DOAN**

Ostolaza kalea 7,
20820 Deba
Tel: 943 19 21 92

RPS: 183/12



AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95 



urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

 N° 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3 20820 DEBA Tel.: 943 192 471 Tel./Fax: 943 192 303 urlo@urlo.net




ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfatico -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak * Dietista * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel./faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com



ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)



ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



ASESORIA DEBA
Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com
Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)



ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

ADATS ILEAPAINDEGIAK MUTRIKU
Behoko plaza 1 MUTRIKU
T. 943 60 39 45

 www.facebook.com/adatsileak
 @adatsileak

ITURLAN, S.L.
Iturgintza-Berogailuak



Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfnoa - Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



K21
KALITATEA
Empresa Registrada N° 2/05/049
NIVEL 2

Maitena Arrizabalaga Deba
Odontologoa

Kolegiatu zk.20.000.975


maitena
HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24 Gipuzkoa kalea 28-3°esk, Zarautz

badator

Berriketan .eus

parte hartu
parte izan



albisteak
iritziak
agenda
mediateka
komunitatea